



ANDOAINGO UDALA

ELURTE PLANA 2011-2012

AURKIBIDEA

1. HITZAURREA

2. HELBURUAK

3. PLANAREN ZUZENDARITZA ETA KRISI-MAHAIA

4. ELURTEETARAKO KOORDINAZIO ZENTROA (EKZ)

5. ANTOLAKETA

5.1. Beharrak estaltzea.

5.2. Baliabideak banatzea.

5.2.1. Urgarrien stocka

5.2.2. Aurretiko abisu sistema

5.2.3. Materiala prestatzea

5.2.4. Aktibazio eta mobilizazio sistema

5.2.5. Enpresekiko hitzarmenak

5.2.6. Udal langileak eta kontratatutakoak.

5.2.7. Baliabideen katalogoa

5.2.8. Herritarrentzako informazioa

6. PLANA AKTIBATZEA

6.1. Alerta aurrekoa (alerta horia)

6.2. Oinarrizko operatiboa (alerta laranja)

6.3. Larrialdia (alerta gorria)

6.3.1. Larrialdia

6.3.2. elurteetarako koordinazio Zentroa (EKZ) martxan jartzea

6.3.3. Krisi-mahaia eratzea

6.3.4. Larrialdia desaktibatzea

7. PLANAREN APLIKAZIOA

7.1. Aldapa eta malden ibilbidea.

7.2. Kontratutako kale-garbitzaileak.

7.3. Udaleko kale-garbitzaileak.

7.4. Obra eta zerbitzuetako lan-taldea

7.5. Baso lan-taldea

7.6. Laguntzarako lan-taldea

7.7. Gatzaren hornidura

8. ELURTEETARAKO BANDOAK

9. ERANSKINEN ZERRENDA

I.- Baliabideen katalogoa (giza baliabideak eta baliabide materialak)

II.- Ibilbideen planoak

i. Lehenetsuneko ibilbideak – larrialdi zerbitzuak.

ii. Edukiontzien banaketa.

iii. Garbiketarako aldean banaketa.

iiii. Maldak eta aldapak.

iiiii. Herrigunean barrenako ibilbidea.

iiii. Landa ingurunean zeharko ibilbideak.

1. HITZAURREA

Azken urte hauetan ohikoa izaten ari da ANDOAINen elurra egitea; elur hori, zenbaitetan, eta batez ere gauean zehar, altuera nabarmena izatera iritsi da, eta horrek hainbat eragozpen sortu ditu herriaren funtzionamenduan eta bizitzan. Eragozpen horien artean, honakoak azpimarratu behar dira: zirkulazioa etetea eta geldotzea, zenbait lekutara iristeko zailtasunak, eta zenbait alde isolatuta eta inkomunikatuta.

Elurte horiek jarraikakoak ez direnez, eta beraien iraupena luzea izaten ez denez, ez da beharrezkoa zerbitzu iraunkor bat antolatzea; ez da beharrezkoa ezta ere elurteetarako prestatutako pertsonen eta materialen erreten estazional bat edukitzea. Hala ere, elurteen ondorioz, eta batez ere eguneko lehenengo orduetan, jardueren funtzionamendu arrunta posible izaten ez denez, disfuntzioak eta galera ekonomikoak sortzen dira. Horregatik, ezinbestekoa da elurteen ondorio negatiboak desagerraraziko dituzten edo, gutxienez, arinduko dituzten jarrerak eta neurriak hartzea. Hori horrela, ELURRA EGINEZ GERO ESKU-HARTZEKO PLANA prestatu da.

2. HELBURUAK

Plan honen helburu nagusia da egon badauden bitartekoen antolaketa eta koordinazio eraginkorra lortzea, eta premiak aztertzea, elurra egiten duenean herritarrari ahalik eta babes eta laguntza handiena emateko.

Horretarako, honako lan hauek egingo dira:

- Larrialdi-kasuetan beharrezkoa den laguntza emango da, arriskuan dauden edo ezbeharrak izan duten pertsonen eta ondasunen salbamendua, erreskatea eta babesa ahalbidetuz.
- Leku publiko eta pribatu berezietara iritsi ahal izatea bermatzea, beraien funtzioak beti bezala garatu ditzaten: klinikak, osasun-etxeak, zaharren etxeak, udal zerbitzuak eta zerbitzu publikoak (autobusak, hilerria, eta abar).
- Zirkulazioa ahalbidetzea, herriko bide nagusietan eta joan-etorri gehien dituzten bideetan, bai herrigunean eta baita kanpoaldean ere, urrunen dauden zonaldeak eta landa ingurunea isolatuta geratzea saihestuz.
- Jarduera industrialak atzeratzea eta etetea saihestea, alde zehar eremu horietarako sarbideetan jardunez.
- Lehenetsutako arreta behar duten egoera horiek guztiak ere konpontzea.

Aldi berean, herritarrei informazio argia eta garbia emango zaie etengabe, egoeraren bilakaeraren berri emanez, eta unean uneko abisu eta aholku egokienak helaraziz.

Harrera eta egoitza zerbitzu bat eskainiko da, Gizarte Zerbitzuetako lansailaren eta Enplegu lansailaren bidez, elurtearen ondorioz kaltetuak gerta daitezkeen horientzat, bai gizartetik baztertuta dauden pertsonak direlako, bai beste edozein herritar sektore direlako, bai herrian aldi baterako dauden pertsonak direlako, eta abar.

3. PLANAREN ZUZENDARITZA ETA KRISI-MAHAIA

Plan honen zuzendaritza Alkatetzari edo Alkatetzak eskuordetzen duen zinegotziari dagokio. Honek, gainera, krisi-mahaiaren laguntza izango du. Krisi-mahaia Udaltzaingoaren egoitzan osatuko da, eta bertan honako zerbitzu hauetako arduradunak edota teknikariak bilduko dira:

-SEGURTASUNA

- Udaltzaingoko zinegotzi ahalduna
- Udaltzainburua

-ZERBITZUEN LANSAILA

- Zerbitzuetako zinegotzi ahalduna.
- Zerbitzuetako teknikari arduraduna.

-INGURUMEN TEKNIKARIA

-KOMUNIKAZIO ARDURADUNA (*egongo balitz*)

Kasu orotan, krisi-mahaiak baloratuko du beharrezkoa den beste teknikari edo langile batzuk ere egotea.

4. ELURTEETARAKO KOORDINAZIO ZENTROA (EKZ)

Alkatetzaren edota Udaltzaingoko zinegotzi ahaldunaren zuzendaritzapean, Elurteetarako Koordinazio Zentroa jarriko da Udaltzaingoaren egoitza nagusiko (Extremadura 11) bilera-gelan.

Elurteetarako Koordinazio Zentro horrek koordinatuko ditu operazio guztiak eta, hala balegokio, baita larrialdia ere. Gainera, batetik CECOPen eta bestetik bitarteko mekanikoen (elurra kentzeko makinak, xaflak, gatza zabaltzeko makinak...) nahiz gainerako udal zerbitzuen arteko lotura izango da. Era berean, partikularren eskaera puntualak kontrolatuko ditu, beharrezkoa den sailkapena eginez eta lehentasunak zehaztuz. Zentro honek Zerbitzuetako lansaileko zinegotzi-ahaldunaren laguntza izango du.

5. ANTOLAKETA

5.1. Beharrak estaltzea.

Zehaztu diren helburuak estaltzeko xedez, komenigarri iritzi diogu honako alderdi hauei erantzutea:

- a) Aldez aurretiko abisu sistema fidagarri bat edukitzea, plana aktibatzea eragin dezakeen egoera klimatologikoa behar bezain besteko aurrerapenarekin ezagutu ahal izateko. Aldez aurretiko abisu hori SOS DEIAKek egingo du.
- b) Aldez aurretik zehaztutako mugak gainditu direnean sistema martxan jarriko duen alarmarako eta mobilizaziorako dispositiboa edukitzea.
- c) Urgarrien (GATZA eta GATZUNA) stock egokia prest edukitzea, izotz-plakei edo elur gogortuari unean bertan erantzun ahal izateko.
- d) Elurra kentzeko makinen eta oinez doazen langileen oinarrizko ibilbideen eta lan-eremuen azterketa egitea, eta ondoren azterlan honen eranskinetan agertuko diren planoetan jasotzea.
- e) Akordioak eta kontratuak hitzartzea pisuzko makineriarekin (batez ere kamioiekin eta traktoreekin) lan egiten duten partikularrekin nahiz enpresekin.
- f) Plan honetan sartuta dauden Udaleko zerbitzuei plan honen arabera dagozkien lanak egiteko beharrezkoa duten gutxieneko ekipamendua ematea.
- g) Lan horretarako prestatutako boluntarioen talde bat mobilizatzea aurreikustea. Boluntario talde horrentzako aseguru-poliza bat kontratatzea aurreikustea.
- h) Udalaren zerbitzuen artean langileen eta bitartekoen mobilizazioa prest edukitzea.
- i) Urgarriak, ekipoak eta materiala hornitzen duten enpresei buruzko informazio osatua edukitzea, egoera uste baino gehiago luzatzen den kasuetarako. (dokumentu honi erantsita).
- j) Behar bezala koordinatzea ekintza guztiak planean txertatuko zerbitzu eta erakunde desberdinekin, lanak eta ahaleginak bateratuz, eta eragiketa horien guztien zuzendaritza aginte-postu bakarrean zentralizatuz.
- k) Herritarrei informazio egokia helaraztea, eta herritarren jarduera behar bezala garatu ahal izateko beharrezkoak diren bandoan eta ebazpenak ematea.
- l) Udalaren egoitza-baliabideetako egoitza plazak planaren eskura jartzea.

Udalaren baliabideak nahikoak ez direnean, herriko ostalaritza baliabideekin hitzartu eta kontratatuko dira, Gizarte Zerbitzuen lansailak bere prozeduratan ezarrita dituen hurrenkeren eta lehentasunen arabera.

5.2. Baliabideak banatzea.

Planteatzen diren premiak kontuan hartuta, honako baliabide-banaketa hau egiten da.

5.2.1. Urgarrien stocka

Gatza banatzeko puntu desberdinak jarriko dira: nagusia, herrigunean dagoelako eta karga eta deskarga lanak errazten dituelako, Txistokin egongo da, transformazio zentroaren ondoan.

Aldi berean, gatza bilduko da, bai Aranaztegiko udal lokalean eta baita Udaltzaingoaren eraikinean ere.

Gatza 25 kg-ko zakutan egongo da, gatz hori ondoren gatza zabaltzeko elementu desberdinetan eskuz jarri ahal izatea errazteko.

Gatzik gabe geratuz gero, edo aparteko beste edozein arrazoiengatik gatza premia biziz beharko balitz, Foru Aldundiko Ibilgailuetako Errepide Zerbitzuari (Ubilluts poligonoari) eskatuko zaio, horretarako beharrezkoa den hitzarmen arautzailea sinatu ondoren.

Modu prebentiboan, gainera, malda handia dutelako edo beste arrazoiengatik arazo ugariagoak izan ditzaketen alderdi horietan gatzuna botatzea erabaki daiteke. Urgarri mota hori berria denez, oraindik aztertzeke dago nola bildu eta biltegiratu.

5.2.2. Aurretiko abisu sistema

Meteorologia Zerbitzuak egingo du, SOS Deiak-en bidez, EUSKALMETeko protokoloari jarraiki, elurte-aurreikuspena 200 metroren azpitikoa denean. Abisu horiek Alkatetzan jasotzen dira. Alkatetzatik, posta elektronikoz, automatikoki berbidaliko dira, euskarri informatikoez baliatuz, Planean txertatutako udal zerbitzu guztiak jakinaren gainean egon daitezen eta prebentzio neurri egokiak har ditzaten.

5.2.3. Materiala prestatzeko abisua

Abisu hori Zerbitzuetako zinegotzi ahaldunak aktibatuko du, eta arlo bakoitzeko teknikariek jakinaraziko diete jarduketa hauetarako aurreikusi diren bitartekoen kanpoko arduradunei (traktoreen jabeak, enpresa kontratatuak,...), SMS bidez. Horrela, arduradun horiek beren traktoreak eta zerbitzuak prestatuko dituzte, lanerako prest egon daitezen, elurte aurreikuspenak hala agintzen duenean.

5.2.4. Aktibazio eta mobilizazio sistema

Larrialdia aktibatzeko sistema Planaren zuzendariari dagokio, eta **baliabideen mobilizazio sistema**, berriz **Zerbitzuetako zinegotzi ahaldunari**, 6.3 puntuan ezarritakoarekin bat.

5.2.5. Enpresekiko hitzarmenak

Zerbitzuen lansailak elurra kentzeko eta gatza zabaltzeko mobilizatu daitekeen makinariaren "poltsa" bat sortuko du. Kontratatu beharreko makinaria, funtsean, honakoa izango da:

- *XAFLADUN TRAKTOREAK
- * ONGARRITZEKO TRAKTOREAK
- * ONGARRITZEKO TRAKTORE XAFLADUNAK
- * GATZA ZABALTZEKO KAMIOI XAFLADUNAK
- *HODEAMAKINA MISTOAK

5.2.6. Udal langileak eta kontratatutakoak.

Kapitulu honetan 2. atalean planteatutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren baliabideak zehaztuko dira:

- a) Egoera zailetan salbamendu eta erreskate lanak egiteko behar bezalako prestakuntza duen esku-hartze talde bat. Nagusiki Gurutze Gorriak eta Ertzaintzak osatuko dute talde hau, SOS Deiak-en bidez.
- b) Larrialdietarako osasun-garraiorako talde bat. Oraingo nahikotzat jotzen da Gurutze Gorriko Andoingo taldea.
- c) Elurra kentzeko bi talde. Horretarako, elurra kentzeko bi xafla eta gatza zabaltzeko gailu bat muntatuko dira, Udalaren ibilgailuetan.

Lorategietako traktore batean ere jarriko da elurra kentzeko xafla bat. Ibilgailuen ezaugarriengatik, gatza zabaltzeko gailua jartzeko ibilgailurik egokiena (eta agian bakarra) Ingurumen lansailaren pick-up ibilgailua da. Ibilgailu horri pala bat ere jarriko zaio aurrealdean. Ibilgailu hori Udaltzaingoak ere erabili ahal izango du, ingurumeneko lan-taldeak duen ordutegitik kanpo.

- d) Planaren zuzendaritzak izendatutako planifikazio eta koordinazio talde bat. Talde honetako unitateak lur orotako ibilgailuetan ibiliko dira, tokian tokiko informazioa eta antolaketa ahalbidetzeko. Guztia Planaren zuzendariaren koordinaziopean.
- e) Oinezko taldeak: obra eta zerbitzuetako lan-taldeak, kale-garbitzaileak, baso lan-taldeak, langile laguntzaileak (boluntarioak) eta udaltzainak; horiek elurra kenduko dute espaloietatik, pasealekuetatik, zubietatik, pasareletatik, bideetatik eta abar.
- f) Harrera eta egoitza baliabideak Gizarte Zerbitzuen lansailaren eta Enplegu lansailaren mende egongo dira.

5.2.7. Baliabideen katalogoa

Udaleko lansail eta zerbitzu guztien artean koordinatuta egingo da. III. eranskinean agertzen da.

5.2.8. Herritarrentzako informazioa

Alkatetzaren erantzukizuna izango da herritarrei beharrezkoa den informazioa helaraztea. Alkatetzak emango ditu, hortaz, egoera bakoitzari egokitutako komunikatuak eta aginduak, Elurteen Koordinazio Zentrotik igorritako informazioaren arabera. Partikularrek egiten dituzten informazio-eskaera puntualei udaltzainek erantzungo diete, 092 telefonoan. Ahal dela behintzat, informazio-eskaera horiek Alkatetzaren idazkaritzara deribatuko dituzte. Komunikabideei komunikazio-arduradunak erantzungo die. Zerbitzu horrek, gainera, udal bando bat ere argitaratuko du, herritarrei eman beharreko gomendioekin. Bando hori agiri honetan jasota dago. Informazio zerbitzua lankidetzan jardungo da, informazioa bere sistemen bidez zabaltzeko.

Etxejabeen elkarteei eta merkatarien elkarteei gogoraraziko zaie oso garrantzitsua dela beren fatxada-zatiari dagokion espaloi-zatia garbi mantentzea, eta baita estoldazuloak ere garbi mantentzea, Udal Bandoan adierazitakoari jarraiki, elurra pilatan metatuz eta oinezkoak nahiz ibilgailuak igaro ahal izatea eragotzi gabe.

Enpresen titularrei gomendatuko zaie beren instalazioetarako sarbideak eta instalazioen barrualdeak garbi mantentzea, horietara zuzentzen diren ibilgailuek kaleko trafikoa kolapsatu ez dezaten. Oinezkoei gomendatuko zaie garraio publikoa erabili dezatela, espaloietatik ibili daitezela eta errepideak gurutzatzeko oinezkoentzako zebra-bideak erabili ditzatela, ahalik eta kontu eta bizkortasun handienarekin.

Gidariei gomendatuko zaie beren ibilgailua premia biziko kasuetan bakarrik erabili dezatela, bide publikoan aparkatuta uztea saihestuz. Zirkulazioari dagokionez, ibilgailuen abiadura galtzadaren baldintzetara egokituko da, ibilgailuen arteko segurtasun distantzia handituz, izotza izan dezaketen lekuak saihestuz eta libratu gabeko irteerak dituzten bidegurutzeetan sartu gabe, bidegurutzeak kolapsatzea ekiditzeko.

6.- PLANA AKTIBATZEA

6.1. Alerta aurrekoa (alerta horia)

Udaltzaingoaren CECOP zentrolean SOS DEIAKek (Euskalmet zerbitzua) emandako elur arriskuaren abisua jasotzen denean (200 metroren azpitik, alerta horia), langileak, kontrako fenomeno meteorologikoei buruzko gainerako abisuekin bezala, SMS bidez edo postal elektronikoa bidez bideratuko dio abisua Elurteen Planeko zuzendariari, eta baita inplikaturako zerbitzuetako arduradunei ere. **Alkatetzak**, behin abisuak gure herrian izan dezakeen eragina baloratuta, ALERTA AURREKOA proposatuko du. **Zerbitzuetako zinegotzi ahalduna**, bestalde:

* Planean sartuta dauden udal zerbitzu guztietako arduradunekin harremanetan jarriko da, aurreikusitako operatiboa gogoraraziz.

* Zerbitzuetako teknikariari esango dio egiazta dezala zenbat gatz duten pilatuta, eta, egoki iritziz gero, urgarien stocka osa dezala. Aurrez ezarritako lekuetan gatz-zakuak badaudela egiaztatuko du.

* Elurra kentzeko eta gatza zabaltzeko ekipoak prest daudela egiaztatuko du. Prest egongo ez balira, berehala aurkituko du horien baliokide diren makina partikularrak.

* Mobilizatu daitekeen makineria partikularraren titularrei abisatuko die, makinak erabiltzeko moduan dituztela egiaztatuz. Intentsitate handiko elurteak espero badira, makinaria hori OPUAra eramatea aurreikusiko da, berehala erabiltzeko moduan edukitzeko.

* Kale-garbiketarako makinariaren eta gatza zabaltzeko makinaren ibilbideen eta zonaldeen fitxak erreparatuko ditu.

**Bere zerbitzura dauden langileak alertatuko ditu, elurteak dirauen bitartean mobilizatzeko aukera aurreikusi dezaten.*

Udaltzaingoko arduradunak:

* Elurteen Koordinazio Zentroa prestatuko du, abian jarri ahal izateko (telefonoak, ekipo informatikoak, planoak, eta abar).

* Beharrezkoak diren jarraipenerako programa informatikoak prestatuko ditu.

* Koordinazio Zentroan garbiketa-lan guztien lanerako irrati-frekuentzia duten transmisioen ekipo bat instalatuko du.

* Garbiketa lanetarako eta gatza zabaltzeko makinekin batera joango diren ibilgailuak prestatuko ditu, irrati-transmisioko instalazioak egiaztatuz.

6.2. Oinarrizko operatiboa (alerta laranja)

Herriko edozein puntutan elurraren edo izotzaren ondoriozko lehenengo arazoak agertzen direnean, edo modu prebentiboan arazoak agertu aurretik, Oinarrizko Operatiboa jarriko da abian (alerta laranja). Operatibo horrek lehenetsuneko helburuak bakarrik estaliko ditu (eraztun nagusiak, klinikak, zaharren etxea, osasun-etxea, eguneko zentroa eta aldapak, guztiak ibilbideen planoan –I. eta II. ERANSKINAK- jasotakoak). Laneko sekuentziak Larrialdirako ezarritakoen berdina izango dira. Desberdintasun bakarra hasiera izango da, hau EDOZEIN ARAZO GERTATZEN DENEAN JARRIKO BAITA MARTXAN AUTOMATIKOKI.

Oinarrizko Operatibo hau Larrialdiaren aurretik jarriko da martxan beti. Ez da beharrezkoa izango krisi-mahaia eratzea, baina bai informatu beharko zaiela krisi-mahaiko kide guztiei. Oinarrizko operatibo honen zuzendaritza lanean dauden Obra eta Zerbitzuetako arduradunak (bitartekoak eta logistika) eta Udaltzaingoko arduradunak (ibilbideak eta lehentasunak) gauzatuko dute.

6.3. Larrialdia (alerta gorria)

Alkatetzak automatikoki deklaratu du Larrialdi egoera, eta udaltzainburuak aktibatuko du **ELURRAREN ETA IZOTZAREN ONDORIOZKO ARAZOAK OROKORRAK DIRENEAN ETA UDAL BALIABIDEAK NAHIZ KANPOKO BALIABIDEAK MOBILIZATZEA BEHARREZKOA DENEAN:**

Behin deitutako baliabideak beren lanpostuetan daudenean eta gatza zabaltzeko gailuak dituztenek gatza eskura dutenean, Udaltzaingoa esanetara jarriko dira, horiei laguntzeko eta garbiketa-zonaldeetatik banatzeko.

Elurtearen ondorioak hain dira garrantzitsuak ezinbestekoa dela Planaren baliabide guztiak abian jartzea. Egoera horretan derrigorrezkoa izango da Elurteen Koordinaziorako Zentroa (EKZ) deitzea. Zentro hori honela osatuko da:

*Planaren zuzendariak (Alkatetzak) edo honek fase honetarako izendatutako pertsonak krisi-mahaiko kideei deituko die, bitarteko informatikoak, SMSak edo posta elektronikoa erabiliz.

*Planaren sartuta dauden departamentuetako eta zerbitzuetako arduradunak krisi-mahaira bertaratuko dira, Planaren zuzendariak adierazitako lekuan eta unean.

Elurteen Koordinaziorako Zentroak (EKZ) planaren garapenari buruzko informazio guztia koordinatuko eta erregistratuko du. Horretarako, makinekin batera doazen udaltzainen jasotzen duten informazioaz gain, bi edo hiru pertsona ere izango dituzte, tokian tokiko jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Arazoak eman ditzaketelako edo jadanik abisuren bat jaso delako EKZk agintzen dituen lekura joan beharko dira pertsona horiek. Udaltzain-talde horiek lanen inguruko orientazioa emango dute, eta informazioa bidaliko diote EKZri etengabe.

Mobilizatutako makinariak, EKZren zuzendaritzapean eta Udaltzaingoko taldeen laguntzarekin, AURREZ ERABAKITAKO IBILBIDEAK egingo ditu lehentasunez. Ahal den neurriak, makina horiek ez dira erabiliko programatutako ibilbidetik kanpo dei puntualei erantzuteko.

6.3.2. Elurteen Koordinazio Zentroa (EKZ) martxan jartzea

EKZ **larrialdia** deklaratu den unean bertan jarriko da martxan. EKZ honetatik bete beharreko helburuak dira:

- Gertaeraren garapenari buruzko informazioa biltzea, informazio hori aztertzea eta planifikazioaren nahiz garbiketa-estrategien inguruan egoki irizitako aldaketak proposatzea.
- Planaren zuzendariari arreta berezia behar duten gorabeheren berri ematea.
- Ibilbideak koordinatzea, eta, egoki iriziz gero, ibilbide horiek aldatzea. Horretarako, harreman zuzena eta iraunkorra edukiko da kalean lanean dauden bitarteko desberdinekin.

- Komunikabideen informazio-eskaerei erantzutea, eta larrialdiak dirauen bitartean zabaldu beharreko prentsa-oharrak, bandoak eta komunikatuak prestatzea.

EKZ abian jarri dela jakinaraziko zaie honako hauei:

- **SOS DEIAK**, idatzizko abisuak fax bidez bidali ditzaten.

6.3.3. Krisi-mahaia eratzea

Planaren zuzendariak edo honek eskuordetutako pertsonak ezarritako unean eta lekuan, krisi-mahaia deituko da. Krisi-mahai honetan egongo dira 3. puntuan aipatu diren arduradunak eta teknikariak.

EKZk puntualki bidaliko dio mahai honi informazioa. Informazioa plan honen operatiboaren garapenari buruzkoa, herriaren egoerari buruz jasotako komunikatuei buruzkoa, eta egin diren garbiketa-eskaerei buruzkoa nahiz larrialdiarekin lotuta interesekoa izan daitekeen beste edozeri buruzko izango da. Krisi-mahaiak operazioen garapena eta larrialdiaren bilakaera ebaluatuko du, uneoro egoki irizitako neurriak hartuz, kasuan kasu gerta daitezkeen egoeren aurrean.

6.3.4. Larrialdia desaktibatzea

Beste egoeretara pasako da (alerta aurrekoa, oinarrizkoa edo larrialdia) planaren zuzendaritzak hala erabakitzen duenean. Planaren zuzendaria da larrialdi egoeraren amaiera deklaratu dezakeen bakarra.

7.- PLANAREN APLIKAZIOA

I. ERANSKINA.- Espaloien ibilbideak.

II. ERANSKINA.- Ibilbideen planoak (errepideak).

III. ERANSKINA.- Giza baliabideak eta baliabide materialak.

7.1. Laguntzarako lan-taldea

Boluntarioek eta epai judizialen arabera komunitatearentzat lan egin behar duten pertsonak osatutako lan-taldeak.

7.2. Gatzaren hornidura

Herrian plana osatzen dutenek gatza biltzeko hornidura-puntu desberdinak jartzeaz gain, landagunetik ere eska ditzakete gatz-zakuak, Ingurumen lansailari deituta.

Negua iristen denean, eta prebentzio moduan, merkatariei eta ostalariei jakinaraziko zaie Udaltzaingoaren egoitzan gatz-zakuak jaso ditzaketela, aurretik beren burua identifikatu ondoren.

Era berean, elurra ari duenean, etxejabeen elkarteak ere joan daitezke Udaltzaingoaren egoitzara, gatz-zakuak eskatzera. Zerbitzuetako zinegotziak erabakiko du zenbat gatz banatuko den.

8.- ELURTEETARAKO BANDOA

Bandoa argitaratzearen helburu nagusia da herritarrak kalean elurra egoteak ekar ditzakeen arriskuez ohartaraztea, kolektibo bakoitzak elurraren garbiketan dituen betebeharrak gogoraraztea, eta herri barruko nahiz herritik kanpoko bideen egoerari buruzko informazioa lortzeko telefono-zenbakiak ematea.

I. ERANSKINA.- Espaloien ibilbideak.

ZONALDEA	TALDEA
Zubiak eta pasarelak	Baso lan-taldea Udaltzaintza
Herrigunea: <ul style="list-style-type: none"> • Kale Nagusia • Goikoplaza • La Salle • Galardi • Arrapala mekanikoak 	Lorezaintzako lan-taldea
Kaletxiki	Obratako lan-taldea Baso lan-taldea
Olagain	Kale-garbiketako lan-taldea
Eraikin publikoak: <ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxeak • Eguneko zentroa • Zaharren Etxea • Osasun Etxea 	Udaltzaintza Zentro bakoitzeko langileak
Gainerako bideak, lehentasunezko bideak eta zonaldeak garbitu ostean	

II. ERANSKINA.- Ibilbideen planoak (errepideak).

<i>FASEA</i>	<i>KALEAK</i>
1	Rontoda Bazkardo – Rikardo Arregi – Agustín de Leiza – C/Mayor (Ayuntamiento) – Avda. La Salle hasta C/Extremadura
2	Desde intersección de la C/Agustín de Leiza con C/Mayor, hasta la rotonda de Juan Bautista Erro
3	C/Erroitz hasta rotonda Manuel Lekuona – Kaleberria desde rotonda Juan Bautista Erro – Pº Txistoki hasta puente Txistoki
4	Kaletxiki – Doktor Huizi y subida hasta Agustín de Leiza – Vial de acceso hasta Parking trasero ambulatorio
5	Zonas rurales
6	Resto de viales municipales

*BALIABIDE MATERIALAK

Azalpena	Kokapena	Kopurua	Arduraduna
Lur orotarako ibilgailua	Eguneko zentroa	1	Ingurumena
Kamioia		1	Ingurumena
Gatza zabaltzekoak	OPUA	2	Ingurumena
Palak	Plazaolako dorrea	9	Ingurumena
Pala karratuak	OPUA	5	Zerbitzuak
Puntadun palak	OPUA	5	Zerbitzuak
Elurretarako palak	OPUA	8	Zerbitzuak
Izotzerako palak	OPUA	8	Zerbitzuak
Eskuareak	OPUA	2	Zerbitzuak
Pikotxak	OPUA	2	Zerbitzuak
Harraskagailuak	OPUA	2	Zerbitzuak
Aitzurrak	OPUA	3	Zerbitzuak
Eskuilak	OPUA	6	Zerbitzuak
Tutu malguak	OPUA	18	Zerbitzuak
Ponpak	OPUA	2	Zerbitzuak
Auto-ponpak	OPUA	1	Zerbitzuak
Multzo eletrogenoak	OPUA	2	Zerbitzuak
Konpresoreak	OPUA	1	Zerbitzuak
Gatza zabaltzeko orgak	Plazaolako dorrea	9	Ingurumena

*KANPOKO MAKINERIA

DUNPERRAK, GARABIAK,...	
AXOR	943591911
MAQUINZA	943304114
TXIMELA	943332300
ZELAI	943691555

EDUKIONTZIAK	
URKITRANS	638418841
EASO	943458917